

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Kontxita Fernandez de Arroiabe  
Pagoaga*

*Eskoriatza,  
Gipuzkoa  
(1921)*

Aurkibidea



## Biografia



Marulandako Potajena etxean jaio zen. Aita Argentinan jaio eta bost urterekin etorri zen; ama gatzagarra zen. Hamar anai-arreba izan ziren, bera hirugarrena. Gurasoek taberna-denda-ostatua jarri zuten Marulandako etxean. Gatzagan hasi zen eskolan bost urterekin. Gerran eskola eten eta Gatzagara lehenengo eta Langraitzera (Nanclares de la Oca) geroago, joan behar izan zuten gordeleku bila. Gerra ostean Marulandako euren etxean jarri zuten eskola. Doña Petrarekin ikasi zuen han hamahiru urte arte. Gero gau-eskolak hartu zituen etxean, euren apopilo zen "Señorita Conchita Perez" maistrarekin. Aita ganadu tratantea zen eta Kontxik ezkondu arte jardun zuen etxean lanetan. Gerra ostean estraperloan ere jardun zuen. Dorletan ezkondu zen Eskoriatzako Tokuartona etxeko Eujenio Erañarekin. Lau seme-alaba izan zituzten. Kontxitaren semea Aitor elkarrizketan egon zen. Bergaran bizi da ezkondu ezkerotik.

## Zintak

### ESK-056

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-10-22
- **Iraupena:** 47 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

## Pasarteak

### 1. Estraperloan Arabara

- **Erref:** ESK-056/002

- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:00:49. **Bukatu:** 00:04:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

### Laburpena:

Arabara joaten ziren jenero bila. Normalean ganaduekin joaten ziren mendiz. Bertan gertatutako istorio bat kontatzen du. Gauez joan behar izaten ziren inongo argitasunik gabe. Inoiz ez zuten arazorik izan soldaduekin-eta denda zutenez ezagutu egiten zutelako. Trenez ere biltzen ziren.

### Transkripzioa

-Zuk gerra osteko kontrabanduak ezagutu zittuen, ezta?

-Honbre. Asko. Asko ibilita nao ni oiñez Maulandatik Bitorixara.

-Zeu be bai. e?

-Honbre, gura aittakin biheko.

-Eta ze ekartzen zeuen?

-Ekarri, jeneralien faten giñan ganauekin, estraperluen ganauekin, mendiz. Akordatzen naiz behiñ noien, batzuk mosue tapauta ta ibiltten zien, klaro, ekartzen zittuen ba mataderiarako ta geiztuak. Eta zubi bat pasau giñuan, hori historixia enoie kontetan, ezta (...). Zubi batetik pasetan da zekor haundi bat narioan eta aittak beste bat, mosue tapauta ta. Aittak esan zostan: "Kontuz, tiraketan botsu zuk jaraiñ, e", zeatik zubittik behera errekoa euen, eta gabez pasetan gittuen horrek. Eta farolik be ezin geikien eruen, aittak ondo akixen horrek bidiok eta hola ibiltten giñen.

-Sekula ez zeuen euki problemarik miñoiekin edo?

-Sekula be ez. Ni neskatillie ta Bitorixara faten giñen aitta ta bixok trenien. Gero, errekauek itten. Trenien faten giñan, eta ittak erosten zostan han gauzak eta trenien sartu. Baiña bera sekula be ez nerekin. Eta nik asientopian sartu ta ekarten nauen olixua, kafia, danetik.

-Libre zaukazuen trenian horrek ekartzia?

-Keba libre. Zenbat neuri begira, Landara ta aillegetan zien, andrak eta pena bat emuten ustien, patata zakutxuekin Landan da aillegetan zienien da, Landan bota. Eta gero fan hari barrero Gatzatik hara. Nik esaten neuen... Neri sekula bez. Eta aittak esaten ustan: "Zuri beiketan botsu, zurie eztala esan". Baiña etxaten tokau sekula be. Egun baten bai artua bagekarren hemen lengusiña batek eta bixok, horrek lenoko zesto horrek astadunek, goixan astadunak, artoz beteta gakarren bixok, eta guardazobil parejia Gaztaiñixan. Pako bizi dan tokixan guardazobil parejia. Esan zostan lengusiñiak: "Ai, ointxe kendukuskue" ta. "Ba, ikusikou". Ezauketan gittuen guardazoillak zegaittik firmetan da tabernara asko etortzen zien, eta esan usten: "Qué lleváis ahí?" "Qué vamos a llevar?, con el hambre que tenéis ahí, maíz", esan nutsen egixa. Gure lengusiñie geratu zan da "Capaz". Sekula ez giñuan euki zerik. Estraperluan asko ein giñuan. Asko.

-Bittorixan rasionamendurik ez euan?

-Egongo zan baiña Maulandakuendako ez. Estraperluen erosi bihar.

-A, erosi be estraperluan.

-Klaro, guk dendatxo bat gauken, ezauketan gittuen dendarixak eta olixue ta ekarri tta. Ta gero nik lagun bat nauken, Eibarko soldau bat euen Bitorixan soldau, eta harekin biaje asko ein nittuen, kapie jazten zeban guardazobil, edo soldau horrek, eta bi pote bost litrokuak hartu holaxen eta Mariñera. Mariñen estaziñue zeuan ba, Mariñera ekarri. Biajie pagetan gotsen da propiña bat emon eta haura ondo eta gu hobeto. Olixue etxakun sekula be faltau etxien.

-Oseake soldaua kapiakin  
-Bai.

## 2. Estraperlokoa dendan saltzeko

- **Erref:** ESK-056/003
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:04:34. **Bukatu:** 00:07:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

### Laburpena:

Beraien etxea taberna, jatetxea eta denda zen. Dezente saltzen zutela dio. Gerra aurreko denda zen. Gerra ostean estraperloko gauzak ere saltzen zituzten denda. Berak 16 urte zituela bere mutil-laguna gerran zebilen, eta hari saldu zizkion 3 kilo baba 18 pezetaren truke.

### Transkripzioa

-Zuek orduan tabernia, jatetxia eta dendia be baeuen orduan Maulandan.  
-Bai, denda txiki bat gauken, ba Maringuak eta, ba dezente saltzen zan. Eta harako sumistrua Bitorixatik?  
-Bitorixatik.  
-Eta estraperluan ekarritako gauzak, saltzen zittuzuen dendan ala dendatik kanpo?  
-Saldu bai, haura be estraperluan. Gabez faten zien Eskoritzatik eta andrak: "Para un kilito de alubias".  
-Eta diruik izeten euen pagaitteko?  
-Bai, dirue baeuen ondiok orduan. (...) Nik hamazazpi urte neuken ia ordurako, eta nobixua neuken eta nobixua gerran ibilitta. Amaiur, entzunde daukotzu? Amaiurko zera, Batallón Amaiur. Ointxe fan zan astien hil zan, oingo astien hil dda bat, haure intimo lagune guria (...), Eskoritzan hil diez danak Amaiurkuak. Eta akordatzen naiz, nobixue zan baiña ondion enauen, neure artien, honek igual jaten emuten dutsetelako gureko jostak eta. Esan notsan, e:"Zu, janik eta badauketzue, babie ta". "Bai zera!" Eta esan nutsen, hiru kilo, aittei harrapau nutsen, e.  
-Nobixuoi emuteko?  
-Etxoin, emon enotsen eiñ, kobrau ein notsen. Askan eukitten zaban bedarra, gaiñian bedar berdía edo zeoze ifiñi eta hantxe zakuetan. Sekule ez zoskuen harrapau. Eta handixek hartu neuk gabian eta hiru kilo emon notsan. Eta pozixao! Seis por tres dieciocho, ondio akordetan jat, hamazortzi pezeta kobrau notsen, xei pezeta kilua. Eta karua zan orduan, e, karua zan.  
-Eta babia Arabatik ekarritakua.  
-Bai.

## 3. Umetako jolasak: "arranpasetan, tortoliska, alfilerrekin"

- **Erref:** ESK-056/005
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:07:57. **Bukatu:** 00:09:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena:**

Umetako jolasak: "arranpasetan, tortoliska, alfilerrak". Orratzekin zelan jolasten ziren azaltzen du, baita arranpasetan ere zelan den.

**Transkripzioa**

- Gerra ostian eta gerra aurrian, eskolan ze jolas klase eitten zittuzuen?
- Bueno, "arranpasetan" esaten gutsen, tortoliska, "alfilerrak", ifiñi holan kartoiak geuk eta alfiler buru baltzak et kolorezkuak eta ifiñi eta holakotxe (afiletan) da.
- Afilekin zer egiten zenuten, figurak eittera?
- Ez, afilek ifiñi tta hari montatzen zezenak irabazi.
- Zela irabazi?
- Por ejemplo afilek mordo bat juntetan ...
- Kartoi bat ifinita?
- Ez, kartoiak ifintzen giñuan etxian.
- Eruteko?
- Bai, eta gero lurrian ipiñi eta jo eta bestia montatzen zebena irabazi.
- Osea ke afilea beste afile baten kontra botaten?
- Bai.
- Bista ona eukiko zebein, ezta?
- Oin baiño hobia, oin be eztauket txarra baiña.
- Eta bestia esan dozu "arranpaka"?
- Bai. Ni oso akerra nintzen horetan, eztakitzu, mutillak holan jarri, zenbat eta gorau, eta pasau, salto. Holakotxiak.
- Zela deketan jatzu horri, jolas horri?
- Arranpasetan. Igual beste zeoze izengo da eta baten batek barre ingo dau.

**4. Marulandan 22 etxetan 24 erlijioso**

- **Erref:** ESK-056/007
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:09:40. **Bukatu:** 00:11:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

**Laburpena:**

<p>Marulandan ume guztiek, neska zein mutil, elkarrekin jolasten ziren, Leintz Gatzagan ez. Leintz Gatzagan eskola gaur egun udaletxea dagoen lekuan zegoen. Marulandan beraien etxean zegoen eskola. 22 etxe zeuden eta ume asko batzen ziren. 22 etxetan 24 erlijioso zeuden (moja zein fraide). Bere ahizpa ere moja izan zen, Brasilen ibilitakoa. Bera ahizpak gaixotasunak arraro bat hartu zuen Brasilen, antza Espainiako pertsona bakarra zen gaixotasun horrekin.</p>

**Transkripzioa**

- Jolasian zela eitten zeuen, neska-mutillak alkarrekin edo aparte-edo?

-Bai, eskolan be holaxen gabitzen.  
-Eskolan be aparte?  
-Gatzan ez baiña Maulandan bai. Maulandan junto neskak eta mutillak.  
-Gatzan be bai.  
-Gatzan ez, Gatzan gauken bixetakuak.  
-Maixua ta maistria?  
-Bai. Oin badau ba aiuntamentua? Haintxe zan.  
-Eta Marulandan danak elkarrekin.  
-Bai. Geure etxian zaon eskolia.  
-Zenbat juntatzen ziñen?  
-Orduan asko. Mariñen be baeuen maistrua.  
-Eskolia be bai?  
-Baitta.  
-Marulandan hainbeste etxe be ez die, ezta?  
-Hogeta bi etxe euzen. Oin be ez dakit zenbat egongo diezen baiña.  
Hogeta bi etxe eta hogeta lau relijioso.  
-Moja ta fraile? Etxeko bat.  
-Etxien gurien bat, baiña lau eozen etxiak be bai.  
-Baiña ola media bat atarateko etxeko bat.  
-Etxe danetan.  
-Horrek abariok eta monjok eta nora faten zien?  
-Eurak euken etxia. Abadia euen Zarimutzen.  
-Danak ez zien egongo Maulandan.  
-Abadiak ez. Frailliak, mojak, danak relijiosuak zien.  
-Eta ez zeukazuen abaderik edo fraillerik Kuban eta Ameriketan ibilitakuak?  
-Neuk aitzia Brasil, Brasillen eta gero hemen be egon zan, gero azkenian  
ba Madillen hil zan, eta hartu zeban hango gaitz bat; etxakon kendu sekula  
be, granoz beteten zan.  
-Tropikoko zera?  
-Tropikal. "Dicen que en Brasil había", bi auzela bakarrik; hango medikuak  
esaten zeben bi auzela bakarrik, eta Españan "uno, tú".  
-Hoixe da loterixia tokaittia.  
-Bai, asko sufridu zeban.

## 5. Familia musikaria

- **Erref:** ESK-056/008
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:11:58. **Bukatu:** 00:13:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Aisia » Kultura » Musika

### Laburpena:

<p>Beraien etxean zituzten soinu-jotzaileak ere, ez zuten ezetarikorik falta etxean. Inguruko jaietara-eta joaten ziren bai bere etxeokak eta inguruetakoak ere. Bere nebak eta gizonak ere tronpeta jotzen zuten gerra ostean.</p>

### Transkripzioa

-Jolasetik aparte dantzak eta errormeixak eta.  
-Bueno! Hori geure aurrian eitten zan.  
-Zuek dana zeukatzuen etxian, eskolia, dantzia, tabernia.  
-Soinujotzailiak danak gurian, neu ez, neskak be bai, monjia be bai;  
kordeona euken monjiak be.

-Mojak korneona joten eben?  
-Monja egonda gero erositta. Ta beste aitzia, ondio Atxabaletan bizi da, eta horrek oin be pianillua ta joteittu. Neu torpiena.  
-Osea ke zuek familixakuak alaiketan zeuen giruoi. Domekero joten zeuen edo?  
-Ez, juten zien Angiozarko Itxua, be juten zan hara soiñua joten hola jaialdixetan, hori elegantia zan da. Eta horren anaia be bai, Julian. Da Angiozargua beste bat; Angiozargua zela zan?  
-Baiña haik etorriko zien aparte.  
-Bai, jaixetan. Itxua jai apartetan baiña bestiak jaiero egoten zan han. Eta gero joten zeuben gure anaiak inbaliduak eta nere gizonak joten zeiban tronpetia. Eta hori gero, gerra ostian da.  
-Gerra ostian?  
-Bueno, gerra ostian be bai, horrek bestiok be bai. Eta hau hemengua...  
-Urki?  
-Urki be bai. Bueno, han zenbat kordeonista! Bueno!

## 6. Marulandako erromeria

- **Erref:** ESK-056/009
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:13:24. **Bukatu:** 00:14:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

### Laburpena:

Sasoi hartan jendea bizikletan zebilenez inguruetako jendea hurbiltzen zen Marulandako erromeriara, baita Arrasatetik eta Oñatitik ere. Errepidearen erdian egiten zen erromeria.

### Transkripzioa

-Marulandako jentia bakarrik egoten zan ala Eskoriatzakuak be bai?  
-Keba! Bizikletan ibiltten zan orduan jentia ta. Mondrauetik be bai faten zien.  
-Maulandako erromeixara?  
-Erromeixara, bai. Bueno!, han erromeixia eitten zan. Eta zeretik, Golibar dana, eta Eskoritzatik be bai. Mondrauetik eta be... , ezta. Baiña Oiñatittik be bai. Oñatikua, ezautukozu igual. Zela jaukak izena, apellidua, Karmelen laguna, Eba, Eban aitta be faten zuan, berorrek zenbat bider esaten daben hara zelan faten zan.  
-Oñatitik oinez etorriko zien gaiñera?  
-Bizikletan, orduan bizikletan ibiltten zan.  
-Marulandako erromeixia famosua orduan.  
-Honbre! Hantxe auen. Hantxe kamiñuan eitten zan, e. Kamiñuan eta hantxe daon plazuelatxuan da kamiñuan.

## 7. Marulandan kotxe bakarra

- **Erref:** ESK-056/010
- **Iraupena:** 0:00:32. **Hasi:** 00:14:28. **Bukatu:** 00:15:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

**Laburpena:**

<p>Erromeriak egiten zituzten sasoian kotxe bakarra pasatzen zen errepidetik eguneko. beraien etxe ondoan aluminiozko tailerra zegoen Aretxaletako Arrue-Beroa dena, "Arrue zaharra" deitzen zien eta hura zen beraien taxi-gidaria.</p>

**Transkripzioa**

-Kotxe asko etzan ibiliko orduan.  
-Bat egunien. Han gure aldamenien euen tailerra, aluminio tailerra. Atxabaletako Arrue, Beroa, entzunda eukiko dozu.  
-Bai, bai.  
-Arrue Zarra, Arrue Zarra esaten gotsen da. Haxe zan gure taxistia. Ikusten giñuenian, Eskoritzara fan bihar igual eta ikusten giñuenian...  
-Hori taillerroi zentralen etxian edo euen?  
-Bai. Ondio hantxe dao huekua, oiñ ez dakit /eztakit/ ze daukien baiña.

**8. Gerra garaian errotak itxita**

- **Erref:** ESK-056/012
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:16:36. **Bukatu:** 00:17:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena:**

<p>Artoa zuten etxean. Gerra denboran errotak itxita egon zirenez talok egiten zituzten. Beraien aitzak Gasteiztik ekarri zuen makina bat irina egiteko estraperloan.</p>

**Transkripzioa**

-Zeuek garirik eukitten zeuen souan edo?  
-Garirik ez, artua bai.  
-Artua bai?  
-Artua, patatia, babia...  
-Artua ixotzen zenuten errotan?  
-Hoixe. Bueno, gerra-denporan taluek eitten gittuen, taluek eitten gittuen baiña prohibiduta egon zan errotak, danak orduan errotak, eta gure aittak ekarri zaban hola Bitorixatik makinatxo bat eta han ibiltzen giñen illaran danok, puf, besuek kantsauta hantxe joten. Iriña jeneralian aittak Arabatik ekartzen zaban estrapeluan.

**9. Gerra hasi zenean, Marulandatik Gatzagara**

- **Erref:** ESK-056/017
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:21:21. **Bukatu:** 00:23:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Borroka](#)

### Laburpena:

Gerra hasi zenean, Marulandan egon ziren. Beraien aita Gasteizera joan zen dirua zigilatzen, eta etxera etorri ezinik gelditu zen. Hala ere, gauetan aitak ogia pasatzea lortzen zuen. Gatzagan, lehenengo falangistak, gero erreketek, eta azkenik soldaduak egon ziren. Aitak esan zien handik irten behar zutela, eta beraien bila etorri zen. Marulandatik Gatzagara basoz eta gauez joan ziren. Milizianoak etxe gainean zeuden; eta, beti tiroka zeudenez, beraiek etxetik irten ezinik.

### Transkripzioa

-Gerria hasi zanian gu gengozen Maulandan. Egon giñan hille bixen. Gero sartu zien nazionalak, lelengo falangistak sartu zien Gatzara. Guk Gatzan aittajauna-amandrie gauken eta han eitten giñuan, eskolara be haraxe ta. Hori lehen esan dotsutena da eskolakua Maulandakua gerra ostekua. Gerra aurrian tiakin egon giñan. (...).

-Klaro, zu hasiko ziñan Maulandako eskolan gerra ostian. Gerran etzan egongo eskolarik.

-Ez. Gatzara faten giñan. (...). Maulandan gengozen, eta Maulandan atiak itxitta, gure aitta jun zan Bitorixara dirua estanpilletan, eta orduantxe egunian sartu zien eta geratu zan aitta, eta ezin etorri etxera, Gatzara kilometro bat dau bakarrik, e. Baiña gabetan pasetan oskun ogixa.

-Aittak?

-Aittak eta beste batek. Pasetan oskun. Gero gengozen gu Gatzan nazionalak, soldauak... Reketiak egongo zien. Lelengo falangistak sartu zien, gero egon zien reketiak, eta gero soldauak. Eta fan gintzenien, aittak esan oskun ba urten ein biher geuela. Bera ezin etorri, eta gaiñera etorri ezkerro, bakitzu, peligrua zan orduan batetik bestera (pasatzia). Eta Gatzatik etorri zien gabian aitta ta beste bat -tio edo eztakit zein zan; bai, tio izengo zan-, eta etorri zien eta atara gindduen. Baiña dana itxitta etxian, zeoze erropak edo zeoze hartu giñuan baiña. Maulandatik atzera hiru ordu tardau giñuan Gatzako basarri batera. Basoz fan giñan. Klaro, bestela kamiñuan. Gatzan soldauak begira eta milizianuak eozen Zarimutzen, hantxe goixan. Ta beti ba tiroka ta guk etxetik urten be eziñ eiñ. Katamarran faten giñan han beste etxera ta hola.

## 10. Marulandako etxean ezkutatuta

- **Erref:** ESK-056/019
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:24:00. **Bukatu:** 00:28:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Errepresioa](#)
- [Politika](#) » [Jarrera politikoak](#) » [Erreketeak](#)

**Laburpena:**

Kontxita eta Pako behin etxea zelan zegoen ikustera bueltatu ziren Marulandara, eta kotxe bat hurbiltzen ikusi zutenean, etxe barruan ezkutatu ziren. Handik behatu zuten zer gertatzen zen kanpoan. Haiek alde egiterakoan, auzoko beste batzuk, beraiek heldu zirela ikusi zutenak, hurbildu egin zitzaizkien. Baina goian zeuden soldaduek edo erreketeeek hura ikusi eta behera jaitsi ziren beraiengana. Etxera sartu zitzaizkien dena begiratzera eta lehen han egondakoan nortzuk ziren galdetzera, ez baitzuten uste baserriar soilak zirenik.

**Transkripzioa**

-Gero Gatzan geuzela egun baten Pako eta bixok fan giñan Maulandara, mendittik edo atzekaldetik edo, fan gintzan Maulandara, ba etxie ikusten zela dauen edo, zeoze erueten, erropan batzuk erueten edo fan gintzen. Pako mutikotxue zan, nik hamabost urte neuken, harek hamahiru urte. Eta fan giñen bixok, eta joan giñan bixok...

-Gabaz?

-Ez, ez, egunez. Jun giñan eta ikusi giñuan bentania zabalik, zabaldu giñuan ba bentanak zabaldu oriatzeko, ezta. Ikusi giñuan zetorrela han, Palazio bakitzu nun daon Maulandan? Bueno, gure illaran; gero errebuelta bat hantxe, hori errotia esan-tsuten tokixa; da hantxe, ikusi giñuan etorten kotxe bat, ondio ikusten nau, berde bat edo grisa, holakotxe bat, brindautakua. Eta ikusi giñuan bentana (...); eta geratu gintzan barruan bixok bakarrik, geratu giñan. Eta etorri zan poliki, poliki, poliki, eta gu handik kortiña ostetik begira bixok. Eta gurian buelta ein zeban. Eta zaukan brindau horrek zeuken bi txulo alde bakoitzetik edo hiru, eta ikusten zan fusillak handik. Guk bagenkixen ze zan zegaittik gerra-denporan ikusten giñuan han da. Eta ra!, poliki, poliki buelta ein zeban, batek urten zeban, persona batek bera manejatzeko eta barriro jun zan. Eta jun zanian eta han errebueltia pasau zanian, urten giñuan kanpora baiña han basarritarrak eta ikusi ein zeuben haura eta etorri zien, tabernie ikusi euen zabalik euzela, ta, klaro, desiatzen euzen etorteko, ha zan ba euren etxioi. Eta etorri zien kuadrilla bat, eta urten giñuan danok kamiñora eta Gatzatik soldauak ikusi eta tiroka hasi zien, da danak hanka ein zeuben zerok. Da gurian aitta ta ama larrituta, soldauak esan zotsen, zelan tiroka somau zeuben eta "a ver a donde tiraban" edo eztakit na nik zer, eta gu barruan atioik itxi gittuen barriro eta eurok hanka eiñ euen, baserritarrok fan zien etxera, Errotakua, (Iparretxeukuak) eta danak. Eta etorri zien soldauak. Soldauak ez, reketiak, bueno, igual da. Etorri zien eta atia jo oskuen. Zabaldu giñuan, eta ra!, ri-ra!, rebisau oskuen etxia, eta esan oskuen aber nun dauzen han kamiñuan ikusi zittuenak. Eta ba txera fan ziela. Aber zeintzuk zien; zegaittik haik ikusi ein zeuben haura, etorri zan zera, pentsau zeuben ba jentie itxi zebela han. Derrepente izen zan ba. Enda gero han beste etxian aber hango ordenia zan. Harek ez zeuben sinistuten harek baserrikuak zienik. (Esan gontsen) harek baserritarrak ziela, atia zabalik ikusi zeubenian etorri ein ziela, ezta. Tabernara etorri, guk atia itxitta geukela eta. Eta haura be ba haura esplikau gotsen zela izen zan kamioi haura. Eta harek jentia itxi zebala. Eta ezetz esan gotsen, batek zela urten zeban baiña zelan sartu zan barriro eta zelan jun zien.

-Hori blindauoi zer zan ba, milizianuena?

-Bai, milizianuena. Eta gero horrek fan zien, eta esan oskun han beste etxien aber zein dauen. Eta esan notsen neuk: Neuk erakutsikotsuet, hor eztie sartu iñobez. Neuk erakutsikotsuet, eta neuk erakutsi notsen soldauoi etxe dana. Kamararaiño fan gintzen, daba rebisau zeuben da. Da gero eurak eruan giñuen Gatzara, eurakin fan gintzen Gatzara. Eta gero handik

egunetara, gero Gatzara botatzen zebeu, gorrixek botatzen zebeu morterua. Baiña morterua zer? Holakotxe berdetxo batzuk, oindio ikusten nau. Ezebez.

## 11. Gatzagatik Nanclares de Ganboara

- **Erref:** ESK-056/020
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:28:12. **Bukatu:** 00:29:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

### Laburpena:

Gatzagan ez zuten ia ezer apurtu. Beraiek soto batera joaten ziren ezkutatzera abioiak agertzen zirenean. Bonba asko botatzen hasi zirenez, Arabara joan ziren Langara Ganboara (Nanclares de Ganboa).

### Transkripzioa

-Han elizia edo ez zebeu apurtu?

-Ez. Kristal batzuk bakarrik apurtu zien. Ni Jexusekin egon nintzen, beti faten giñen sotano batera. Etortzen zienien abioiak, abioi kaxkar batzuk eukien, ikusten gittuen, eta beti faten giñan sotano batera faten giñan. Jexusi esan nutsen: "Bapez, goazen, etxian egon bihou. Baiña gero botaten hasi zien eta gero sustau, ta fan gintzen han parra arte batera. Eta ikusten giñuan botaten da, ointxe, ointxe, ointxe! Eta nik holaxen tripa azpitan hartu Jexus, mutikotxua, holaxe hartu azpitan eta pentsetan neuan ba neu hilgo nok baiña berau behintzat eztailla hil. Da urten giñuan handik be. Da gero eruen ginduen Gatzara eta bonbak botaten zittuen, txikixak,baaiña bonbak botatzen zittuen, eta han ezin geikiela egon eta gero egon gitzan, Araban egon gitzen. Oñ urak hartuta dao. Nanclares de Ganboa. Nanclares de Ganboan egon giñen. Han pasau giñuan ba gerria abanzau artian.

## 12. Gatzagako zortzi gazteren hilketa

- **Erref:** ESK-056/022
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:29:48. **Bukatu:** 00:31:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

### Laburpena:

Nazionalek Gatzagako zortzi mutil gazte hil zituztenekoa kontatzen du. Batzokian aurkitutako zerrenda batean agertzen zirelako harrapatu zituzten. Beraiek ez zutela gerran parte hartu kontatzen du Kontxitak.

### Transkripzioa

-Esan dozu zortzi lagun garbittu zittuela Eskoriatzakuak edo.

-Gatzakuak, mutil gaztiak. Majuauak. Ondion izena batzuenak akordatzen naiz. (...). Gero horrek txofer horrek ekarri zittuen mutilok horra iges eitteko asmuaz. Da hantxe euzen kamiñuan, kamiñuan berbetan. Da gure amak esaten usten, e: "Horrek ze esaten ete jabiztan hor, zetan ete jabin?" Eta orduan txoferra sartu zan barrura eta esan zotsan gure amai: "Emilia,

gauza bat esan bihotsut: dudan gauz, edo aurrera fan, gorrixetara fan, edo bertan geratu. Eztakigu zer ein". Gure amak esan zotsan: "Ze eiñ dozue ba zuek, ze eingotsue ba zuei? Tira, tira!" "Da aitta ta ama negarrez geratu dia etxian, esan zotsen mutil horrek. Eta esan zotsan: "Ze eingotsue ba". Nere amak esaten zeban: "Neri preguntau jostenen ba hori, e!". Gero geratu zien eta danak afusillau zittuen.

-Gorrixak garbittu zittuen ala bestiak?

-Nazionalak. Listia topau zebe. Horrek guardixia, ba obligau ein zittuen eta guardixia ein zebe mendixen Bitorixatik sartu eztaittezen nazionalak. Gatzan euen batzokixa, eta batzokixan euen hori listioi, eta batzokikuak be bai, batzokikuak aurrera fan zien, baiña hark ahaztuta edo laga zebe listia hantxe, eta handitxik listatik danak hartu zittuen.

-Mutil gaztiak eta danak garbittu? Eta eurak bape parte hartu barik.

-Ezebez, hark ez zien ibilli, hark egon zien hantxe guardixia eitten. Akaso euko zebe fusilla edo zeoze, baiña hark ez zebe eiñ ezebez, zegatik sartu zienian, bueno!, hark hanka etxera. Ezebez, han tropia etorri zanian.

### 13. Fusilatutakoak asko eta libratutakoak gutxi

- **Erref:** ESK-056/023
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:31:49. **Bukatu:** 00:35:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

#### Laburpena:

Bere osaba preso egondakoa zen. Gatzagan eraman zituztenetatik bi libratu ziren, haietako bat bere osaba. Maringo batzuk ere eraman zituzten: bost hil zituzten, abadea tartean. Bere aitak pena handia hartu zuen, lagunak ziren eta. Jokoan aritzen ziren elkarrekin eta orduan gertatu zena kontatu zuen. Baserritar pila bat harrapatu zituzten.

#### Transkripzioa

-Geure tio bat be egon zan kartzelan, haura librau zan, zegatik lelengo bi edo hil zittuen eta gure aittajauna fan zan Donostiara, baiña ordurako bestiak hilda euzen. Gure tio bigarren tandan eruan zebe eta bigarren tandakuak etorri zien. Gatzan librau zien fan zientetik bi, geure tio eta beste bat, beste baserriko bat. Eta Maringuak eruan zittuen, abade bat, abadia be bai afusillau zebe Maringua. Hor disgustua euki giñuan, gure aittai kulpia bota zotsen, zelan Arabara pasauta ta zelan zegon, kulpia, gure aittai fama txarra ifiñi zotsen, beragatik hil zittuela ta, lagunak zien da. Horrek Gatzakuok etxeuak zien beti, egunero egoten zien, zegatik han aldameneko taillarrien ibiltzen zien lanien eta beti geurian. Eta horrek Mariñen hil zittuen, oin be hemen be Bergan be ifiñittue; bueno, ointxe urte bi edo ifini zittuen aiuntamentuen, neu egon nintzen ikusten, nik haik danak ezagutzen nittuen. Da andra bat, beti be ataraten daue zieren, buruko paiñoluaz da, Emeteri. Ondo akordatzen naiz. Mariñen hil zittuen, bost uste dot ziela, eta egon zien geurien aittakin jokuan. Egunero egoten zien. Eta horrek gorrixetara barik nazionaletara... Nazionalak be ez, gu bixen bittartien gengozen; baiña pasau zien, pastoriak zien, eta pasau zien ardixekin, zegaittik bestelan han ezin leikian mendira eruen, mendixan milizianuak abitzen, eta horrek pasau zien Atxorrotz aldera, bestekaldera. Ez euen frenteik eta ezebe ez euen hor. Eta pasau zien. Eta hor baserri baten, gure baiño beheratxuagoko baserrixan lo eitten zebe horrek, eta

jokuan ibilli zien geurian aitta ta danak, eta geratu zan bat -ondion ikusten nao-. Esan zotsan, Martin zeukan izena, esan zotsan: "Hi, Martin, geratu hari, kamaran eitten dozue lo hor, geurian eingok lo", zegatik jokuan akabau barik abitzen, harekin abitzen. "San Martin, geratu hari, geratu hari, geure kamaran lo eingok, jokuan segidu biha juau". Geratu zan eta hauraxe salbau zan bakarrik. Bestiak han hil zien. Gero hango basarriko gizona, Teodoro, hango gizona ibili zan gabien, gero soldauak kontau zeben Gatzan, "a ver cómo le habían llevao a aquellos". Gatzan euki zittuen gau baten. Eta "Cómo le habían llevao". "Que habían andado haciendo señas a Jarindo". Jarinddora, bai. "A Jarindo que había estado haciendo señas a la noche". Eta, pentsaizu, ibilli ei zan farolaz oillo bat otan falta eta oillua topatzen. Baiña orduen ezebe ez zan biher hiltteko, e. Harek ez zeuken beste delittoik ezebez. Eta gure aittei etorri jakon, ondio ezagutzen dot dendara ekartze zebena Bitorixako almazen batekua, Zarate, almazen batekuak ekarten eban jenerua, maiorista zan eta gurera ekartzen zeban. Eta haxe etorri zan nausi batekin. Horrek be entzun barik daz horrek gauzok, eztostazue sekula itxi esaten horrek gauzok.

## 14. Baserritar fusilatua

- **Erref:** ESK-056/025
- **Iraupena:** 0:04:27. **Hasi:** 00:35:43. **Bukatu:** 00:40:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

### Laburpena:

Gatzagako kartzelan gaua pasa zuten baserritarrak kamioian eraman zituzten elkarri lotuta. Zarate aitarengana joan zen galdetzera ea haietako bakoitza, banan bana, zer zen. Aitak lagunak zirela erantzun zion. Guztiak eraman zituzten kamioian eta denak hil zituzten. Jendeak bere aitari leporatu zion hilketa horien errua. Maringo abadea eta bere lagun baten osaba, "tuertua", lotuta eraman zituzten, eta abadea bakarrik hil zuten.

### Transkripzioa

-Gero gure aittai etorri jakon hori, Zarate. Jenerala edo eztakitt ze zan, estrellak edo bazeukan behintzat. Ta neuk ikusi neban, neuk be urten neban eta ikusi neban. Eta kanbioien Gatzatik, horrek kartzelan Gatzan gau bat pasau horrek basarritarrok, auzen hantxe kanbioian, orduantxe jaroi.

-Bizirik ondio.

-Bai, lotuta, alkarri lotuta hantxe. Eta gure aittei, etorri zan barrura hori Zarate eta esan zotsan: "Prudencio, ven, ven", eta jun zan kotxera, neu ba aittakin fan nintzen eta ikusi neban. Eta aittai preguntau zotsan horrek banan-banan-banan zertzuk zien, eta gure aittak esan zotsan: "amigos", eta bategaittik akordetan naiz gure aittak zela esan zotsan: Auxibarkua, caserío Ausibar. Eta esan zotsan. "Y este?" Beste danagatik esan zotsan "pues amigos, estabamos jugando a cartas y eso y le llevaron así, y así, y así. Aittak esan zotsan, neu be hantxe nenguan. Eta esan zotsan, "ese es otra persona que lo que crees tú" Gizona zan onaua! Esan zotsan: "Ese no le ha votao seguro que ni a nacionalistas siquiera. ese a Franco. Orduntxe itxuria botaziñuak zien, etxat akordetan ondo. Baiña aittak esan zotsan: "ese es otra persona que lo que crees tú" Bueno, hortxe akabau zan; eruan

zittuen kanbioien eta fan zien. Etorri zan barrure, eta gure amak esaten usten: "Ai, gure aitta, horrek hor eta gure aitta, aber zeozer pasatzen jakuen gero, zeoze pasatzen jakuen horrei" tta. Aitta sartu zan barrura eta esan utsen: "Ai, estoy de miedo", erderaz eitten zeban. "Pero si he hablado muy bien de ellos! Qué les iba decir pues de esos? Si eran todos amigos, y con lo que eran" "Y si pasa algo?", amak esan zotsan. "Y si pasa algo?" Que si pasó, mataron todos. Eta, klaro, gero etxequak gure aittan kulpa (euki zeben) zegaittik harek ikusi ein zeben. Mondrauen edo egon zien egun baten eta etxeko familixakuok bisittau zeben eta gure aitten kulpia euki zeben. Gure aitta negarrez egon zan esan euenien que el tenía las culpas. "Yo cómo estaría, si siempre estoy fuera y qué casualidad que estaba en casa". Eta hori badakitt hola zana zegatik neu hantxe neguan da. Eta amai esan zotsan: "Qué va, si de todos he hablado lo que eran" Y de este de Auxibar me ha dicho eso. Tomás, Tomás Auxibar. Pues de este me ha dicho eso. Ya le he dicho que no, que es un hombre bien esto. "Ese es otra persona que lo que crees tú", esan utsela.

-Bera be garbittu.

-Danak. Han eruen zittuenak, aurreko gabekuak, danak. Harek pentsaizu, gorrixetatik, nazionalak ez euzen guretan ondio, Gatzan euzen, baiña pasau zien hemendikaldera ardixegaittik.

-Horrek fusillau nun ein zittuen, Mondrauen edo Oiartzunera eruan zittuen?

-Ez, ez. batian Hernanin esaten zeben. Da gero Maringo abadia eruan zeben, eta (egunsentixen?) tiro batekin, Mugarte, Mariñen bakitzu nun dagon, Maringo etxia. Haxe azkenengo auzua. Maringo, zela euken izena, "Tuertua", beti "Tuertua" esaten gutsen, tuertue zan, da nere lagun baten tio zan. Da ha abadiakin lotute eruan zeben, lotuta. Kanbioi bi eruan zittuen, han beste bat zan. Eta lotuta eruan zeben eta librau ein zeben hori. Tuertua librau ein zeben eta abadie hil ein zeben.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-04-08*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com